


HIPIEN LANA



edo

zer jakin nahiko nuke lan honetan  
berria banitz?



# Zer lortu behar du ESKOLAK ikasle etorri berriekin?

Ikasle guztiekin lortu behar diren helburu berberak:

1.- Ikasleen sozializazio ona

2.- Eskola arrakasta



# HIPI-aren izaera

Ikasle heldu berriei hizkuntza irakasten dien irakaslea.

- erreferentea dena ikasle horientzat
- zubi-lana egiten duena gela arruntarekin.




# Dokumentazio garrantzitsua

Hezkuntza sailburuordearen Ebazpena  
ikastetxe publikoentzat, 2017-2018  
(Eginkizunak)

2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura  
artekoaren eremuan ikasle etorkinei  
hezkuntza-arreta emateko II. Plana

COORDINAZIOA:



## HIZKUNTZA IRAKASLEA

Hizkuntza-errefortzuaren programazioa egitea, betiere ikasleen beharretara egokituz.

Ikasleak ezagutzea eta irakaskuntza antolatzea:

- *Taldeetan banatzea. NOLA/ NOIZ*
- *Gela antolatzea.*
- *Material didaktikoak aztertu, antolatu eta prestatzea, ikuspegi egokia erabiliz.*
- *Dagokion hezkuntza-errefortzua ematea.*



## TUTOREAREKIN BATERA

*Ikasle etorri berrien harrera eta inklusioa erraztea, haien gaitasunak garatzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten sustatzea.*

*Ikasleen aurrerapenak eta ikasketak ebaluatzen parte hartzea.*

*Materialak eta edukiak egokitzea, zikloko eta etapako curriculumaren ikuspegitik.*



## GAINONTZEKO IRAKASLEEKIN

*Hezkuntza-prozesuan kulturarteko ikuspegia sartzeko jarduerak diseinatzea.*

*Hizkuntza irakasteko jardueren plangintza egitea.*

*Koordinatzeko prozesu bat ezartzea, Banakako Eskuartze Plana prestatu eta haren aplikazioaren jarraipena egiteko*

